



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

# Datu pertsonalak babezteko politika

2020/12/01



## Edukia

1. Datu Pertsonalen Politika.....	3
2. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?.....	3
3. Nor da Datuak Babesteko Ordezkaría?.....	3
4. Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datuak?.....	4
5. Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?.....	4
6. Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?.....	4
7. Nola lortu ditugu zure datuak?.....	5
8. Nori komunikatuko zaizkio zure datuak?.....	5
9. Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematen dizkiguzunean?.....	5
10. Nola egikaritu daitezke eskubideak?.....	7
11. Zer da konfidentzialtasun betebeharra?.....	7

## 1. Datu Pertsonalen Politika

---

Webgune honen bidez Urola Kostako Udal Elkarteak (hemendik aurrera Udal Elkarteak) egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokien Datu Pertsonalen Politika modu erraz eta arinean adierazi nahi du.

Datuak Babesteko Politika hau garatzeko, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa kontuan hartu da, eta haren helburua datu pertsonalen titularrei haien tratamenduari buruzko alderdi zehatzak jakinaraztea da, besteak beste, tratamenduaren helburuak, dagozkien eskubideak egikaritzeko harremanetarako datuak, informazioa gordetzeko epeak eta segurtasun-neurriak.

Politika hau Udal Elkartearen zerbitzuen eta bere web orriaren bidez jasotzen den informazioari aplikatuko zaio.

## 2. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

---

Urola Kostako Udal Elkarteak da tratamendu jardueren arduraduna eta haren kontaktu datuak hurrengoak dira:

- Posta helbidea: Urdaneta bidea 6 - 20800 - Zarautz
- Posta elektronikoa: [dbo@urolakosta.eus](mailto:dbo@urolakosta.eus)
- Telefonoa: 943 89 08 08

## 3. Nor da Datuak Babesteko Ordezkaria?

---

Datuak Babesteko Ordezkararen (DBO) eginkizuna datuak babesteko oinarritzko eskubidea babestea eta arlo honetan indarrean dagoen eta UDALA-ri aplikagarri zaion araudia betetzea da. Udal Elkarteko DBO-arekin kontaktuan jar zaitezke hurrengo helbidean: [dbo@urolakosta.eus](mailto:dbo@urolakosta.eus)

## 4. Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datuak?

---

Datu tratamenduaren helburua Udal Elkarteak egiten dituen tratamendu jarduera bakoitzari dagokio eta [Tratamendu-Jardueren Erregistroan](#) ikus daiteke.

Tratamendu jarduera bakoitzak dituen helburu zehatzen inguruan informatuko zaizu datuak jasotzen diren bide desberdinetan dauden klausula informatzaileen bidez, hala nola, web inprimakiak, paperezko inprimakiak eta karteletan beste batzuen artean.

## 5. Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?

---

Udal Elkarteak egiten duen datu pertsonalen inguruko tratamenduaren lege-eginbearra betetzeko, interes publikoaren izenean edo esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko, interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren adostasunarekin egiten da.

Interesdunaren adostasuna beharrezkoa bada datuak tratatzeko, interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua izango da, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina.

Tratamendu-jardueren erregistroak, tratamendu jarduera bakoitzari aplikagarri zaion oinarri juridikoa jasotzen du.

## 6. Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?

---

Datu pertsonalak ez dira gordeko dagokion tratamenduaren xedeetarako behar den denbora baino gehiagoz, salbu eta interes publikoaren izenean artxibatuzko, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika-xedeetarako gorde behar badira, eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunen preskripzio-epea bete arte.

## 7. Nola lortu ditugu zure datuak?

---

Interesdunak zuzenean eman ditu tratatzen diren datuak. Datu pertsonalak interesdunak zuzenean eman ez baditu, horren berri emango zaio dagozkion informazio-klausulen bidez, datuak lortu ondoren, arrazoizko epe baten barruan, eta gehienez ere hilabete baten barruan.

## 8. Nori komunikatuko zaizkio zure datuak?

---

Tratamendu-jarduera bakoitzean komunikatzen diren datuen hartzaileak Tratamendu-Jardueren Erregistroan kontsulta daitezke. Udal Elkarteak datu pertsonalak hirugarrenei soilik jakinarazten dizkie, baldin eta beharrezkoa bada tratamenduaren xedeagatik edo tratamendua hobeto kudeatu ahal izateko.

Tratamendu Jardueren Erregistroan adierazitakoaz gain, Udal Elkarteak ez dizkie datu pertsonalak hirugarrenei jakinaraziko, legeak hala agintzen ez badu behintzat.

## 9. Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematen dizkiguzunean?

---

Edozein pertsona fisikok egikaritu ditzake indarrean dagoen araudiak ematen dizkion eskubideak: irispide-eskubidea, zuzentzea, ezereztea eta aurka egitea, mugatzea, transferitzea eta banakako erabaki automatizatuen objektu ez izatea.

- Irispide-eskubidea: Interesdunak eskubidea izango du Udal Elkarteak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez eta, hala bada, datu pertsonalak irispidean izateko eskubidea.
- Zuzentzea: datu pertsonal okerrak atzerapen bidegaberik gabe zuzentzea eta datu pertsonal osagabeak osatzea ahalbidetzen du.
- Ezereztea: datu pertsonalak ezereztea eta Udal Elkarteak datu horiek tratatzeari uzta, salbu eta lege-betebehar batek kontserbatzea eskatzen badu eta Udal Elkarteak



datuak tratatzeko interes legitimo larriak ez baditu interesdunen interesen ginetik indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Mugatzea: legeak ezarritako baldintzetan, datuen tratamendua geldiaraztea ahalbidetzen du. Modu horretan Udal Elkarteak etorkizunean datuak tratatzeari ekidindo dio. Soilik legeak zehaztutako arrazoiengatik edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko kontserbatuko dira.

- Aurka egitea: Interesdunak, bere egoera partikularra dela eta, edozein unetan berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egitea ahalbidetzen du. Udal Elkarteak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen ginetik arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

- Transferitzea: interesdunak bere datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzea, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzea ahalbidetzen du. Eskubide hau egikaritzeko, beharrezkoa izango da titularrak helbide elektronikoa bat ematea.

- Banakako erabaki automatizatuen objektu ez izatea: interesdunari soilik tratamendu automatizatu batean oinarrituta dagoen eta berarengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izatea bermatzen dio, profilak egitea barne.

Datuak tratatzeko interesdunaren adostasuna beharrezkoa bada, honako hau interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabekoa, zehatz eta arrazoitua izango da, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina. Interesdunak adostasuna kendu dezake edozein unetan. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarrituriko tratamenduaren legitimitatean. Tratamendu bakoitzaren izaeraren arabera, adostasuna kentzeak datu pertsonal horiek erabiltzen ziren zerbitzua ematen jarraitu ezin izatea ekar dezake, ezinbestekoak baitira horretarako.



## 10. Nola egikaritu daitezke eskubideak?

---

DBOari zuzendutako idazki baten bidez egikaritu ditzakezu eskubideak, "Tratamenduaren arduraduna" eta "Datuak Babesteko ordezkaria" ataletan jasotako harremanetarako datuen bidez, "Datuen Babesa" erreferentzia adierazita. Interesdunen eskaerei erantzuteko, gehienez hilabete batetik hiru hilabete bitarteko epea izango da, eskabideak jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Eskabidean honako hauek jaso behar dira: izen-abizenak eta NANaren fotokopia, eskaera oinarritzen duen arrazioa eta jakinarazpenetarako helbidea.

Udal Elkarteak zure eskubideen egikaritzan emandako erantzunarekin ados ez bazaude, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (<http://avpd.euskadi.eus/>) edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (<https://www.aepd.es/es>) erreklamazioa jartzeko eskubidea daukazu.

## 11. Zer da konfidentzialtasun betebeharra?

---

Datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsonen konfidentzialtasun-betebeharra bete beharko dute, datu pertsonalak behar bezala tratatuko direla bermatzeko, baimenik gabeko edo zilegi ez den tratamenduaren aurkako babesa eta horien galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, neurri tekniko edo antolamendu-neurri egokiak aplikatuz ("osotasuna eta konfidentzialtasuna").